



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

111. zenbakia

2021eko azaroak 19 – abenduak 2

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Izaro Arrutik eta Sandra Prietok irabazi dute Txillardeggi-Hausnartu soziolinguistika saria hezkuntza soziolinguistikorako baliabideen azterketarekin

Bigarren lana euskararen markaren gaineko ikerketarentzat izan da. Hirugarrena, berriz, kulturgintzak hizkuntza-biziberritzeari egiten dion ekarpena aztertzen duen lanarentzat. SLK-k eta EHU-k antolatzen dituzten sarien banaketa ekitaldia abenduaren 15ean izango da Gasteizko Micaela Portilla ikergunean.

Soziolinguistika Klusterra NPLD sarearen Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu dute

Azaroaren 23an egin zen Balear uharteetan Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarearen Batzar Nagusia. Batzarrean, sarearen zenbait kargu eta organo berri ziren. Horien artean, Soziolinguistika Klusterra sarearen Zuzendaritza Batzordeko kide izendatzea adostu zuten kideek.

Gazteak eta euskarari eskaini dio zenbaki monografikoa Bat Soziolinguistika Aldizkariak

Aldizkariaren 120. zenbakian gazteen hizkuntza erabilera, gaitasunak eta bizipenak jorratu dituzte zenbait adituk, ikuspegi desberdinetatik. Neurri batean 2020ko Euskal Soziolinguistika Jardunaldian landu ziren gaiak jaso dira aldizkarian.

Ikerketak

Henrike Knörr beka jarri dute martxan AFAk eta EHUK

[Euskaraba] Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Henrike Knörr-en familiarekin adostuta, euskalari eta euskaltzale honen izena daraman beka sortu dute. Hala, erabaki dute urtero deialdi bat argitaratzea euskararen erabilerari buruzko ikerketa-lanak sustatu eta saritzeko.

Iñaki Arregi udalerrri euskaldunetako azterketak bultzatzeko beka ebatzi dira

[UEMA] UEMAK, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kontseiluak osatutako epaimahaiak Iñaki Arregi ikerketa bekaren deialdian saritutako lanak ezagutarazi dituzte. Aurtengo ekitaldian, euskararen erabilera areagotzeko arkitektura eta hirigintza gidak eta hizkuntza-autoestimua ikertzeko eta lantzeko proposamenak izan dira sarituak.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

"Ikus-entzunezkoak, ikuspegi globaletik Euskal Herrira begirada" hitzaldia, Garazi Goiaren eskutik

Erakunde-komunikazioa modu eraginkorrean eta hizkuntza berdintasunerantz urratsak emateko sortu da Gipuzkoa Berdinago proiektuan eta horren baitan antolatu da hitzaldi hau. Presentzialki parte hartzeko tokiak oso mugatuak izango direnez, saioa streaming bidez jarraitu ahal izango da.

'Etorकिन seme-alabak eta euskara, 20 urteko esperientzien ahotsa' jardunaldia, abenduaren 17an, Eskoriatzan

[HUHEZI] Abenduaren 17an, Etorकिन seme-alabak eta euskara: 20 urteko esperientzien ahotsa izeneko jardunaldia antolatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Ekitaldia Eskoriatzako campusean egingo da, D.0.3 aretoan, eta izena emateko plaza mugatuak diren alde aurretik izena eman beharra dago.

Hizkuntza politika «proaktiboa» izateko zirrikitu bila, udaletan

[Berria] Tokiko hizkuntza politikatik abiatuz nola eragin euskarari. Gai horren inguruko arituen eta adituen iritzi trukerako gune izan zen Donostiako Miramar jauregia, Euskalgintzaren Kontseilua eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako 'Udalak eragile' jardunaldien harira.

XXVI. Jagon Jardunaldia: laburpen-bideoa dagoeneko eskuragarri

Pasa den ostiralean, Euskaltzaindiak XXVI. Jagon Jardunaldia antolatu zuen Iruñean, Kondestablearen jauregiko hitzaldi aretoan. Besteak beste, euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera aztertu zen bertan. Esteka honetatik bertatik ikus daiteke jardunaldiko laburpen bideoa.

Taula de diàleg "Hacia el Decenio Internacional de Lenguas Indígenas 2022-2032: Retos y perspectivas desde la lingüística"

[Linguapax] El Grup d'Acompanyament a les Llengües Amenazades GALA-Linguapax, va participar a la Taula de diàleg "Hacia el Decenio Internacional de Lenguas Indígenas 2022-2032: Retos y perspectivas desde la lingüística", en el marc de la Fira de les llengües indígenes nacionals (FLIN) de Mèxic.

—

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Nola islatu osotasuna zatitutako Euskal Herri batean

[BERRIA] Euskal hedabideek nazio ikuspegitik ematen duten irudia aztertu dute Huheziko lan-talde batek, Izan ala ez izen? Euskal Herriaren irudikapena euskal hedabideetan liburuan. Ondorioztatu dute lurralde zatiketa agerikoagoa dela datuetan oinarritutako kazetaritzan.

New Frameworks for Language Revitalisation in the 21st Century: Case Studies from the Americas and Europe

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] The last monographic of the journal addresses the question of "What does language revitalisation in the twenty-first century look like?" and presents new trends and frameworks in the field.

Hizkuntzen lurraldetasunaren inguruko zenbaki monografikoa Language Problems and Language Planning aldizkarian

[Language Problems and Language Planning] Hizkuntzen lurraldetasunaren inguruko zenbaki monografikoa argitaratu du aldizkariak eta, bertan, hainbat testuinguru soziolinguistiko eta ikuspegi ezberdinetako artikuluak daude irakurgai.

The ideological foundations of Breton and Lower Sorbian language revitalization through education and their consequences for new speakers

[International Journal of Bilingual Education] The article argues that the differences in language ideologies and attitudes of language revitalizers, which form the often unexpressed and unaddressed ideological foundations of these programs, have led to divergences in results of revitalization of Breton and Lower Sorbian.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

—

Bestelako albisteak

Naroa Jauregizuria: "Gazteak euskaraz deseroso sentitzen dira ez dutelako gaitasun nahikorik"

[Hiruka] Getxo, Leioa, Bilbo edota Portugaleteko zenbait gaztek euskaren eta euskal kulturaren inguruan duten pertzepzioa ikertu du Naroa Jauregizuria Lopategik. Lan hori baliatu dute AEK-Ahizek hizkuntza aholkularitza zerbitzuak eta Ikastolen Elkartek #Damolat unitate didaktikoa sortzeko.

Norteko Ferrokarrilla - Humanitate digitalak eta CLARIAH

[Zientzia.eus] Humanitate digitaletako informazioa oso sakabanatuta dago sarean. Hori konpontzeko, badira hainbat ideia martxan, tartean CLARIAH izeneko azpiegitura. IXA taldeko Mikel Iruskieta, EHUkoa, gurekin izan da, CLARIAH euskararen kasuan nola tratatzen ari diren azaltzeko.

Martxan da HIBIL proiektua, Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko 1. Lankidetzaren Sarea

[Garabide] Martxan da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako HIBIL proiektua. Hizkuntza biziberritzeko estrategien inguruko edukiak landu eta beraien komunitateetan garatzeko proiektu baten diseinuan aplikatuko dituzte parte hartzaileek, Euskal Herriko esperientziekin harremanetan jarri eta hausnarketarako gune bat sortzarekin batera.

(lan-deialdia) Seeking a teaching and research academic on Sociolinguistics at Macquarie University

[Macquarie University] Seeking a teaching and research academic to join the leading Department of Linguistics in NSW at Macquarie University. A unique opportunity exists for a professionally qualified academic with expertise in Sociolinguistics/Applied Linguistics.



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala